“Kanoaz Urdaibai jaisteko familia plan baten zozketa”

Lege-oinarriak

1. **Enpresa antolatzailea**

Petróleos del Norte S.A. merkataritza entitateak (aurrerantzean "Petronor"), "petronor.eus" webgunearen titularra, hurrengo oinarrien arabera sustapen bat burutzeko asmoa du.

Bizkaiko lurraldean burutuko da, Internet bidez, www.petronor.eus helbidean dagoen webgunearen bitartez, edo publizitate-bannerren bat edo enpresa antolatzailearen estekaren bat duen Interneteko beste orrietatik sartuta.

2. **Iraupena**

Lehiaketa 2019ko ekainaren 3an hasiko da eta ekainaren 28an amaituko da.

Saihesterik ez dauden arrazoiengatik sustapena bertan behera utzi, aldatu, ezeztatu edo errepikatu behar izango balitz, www.petronor.eus webgunean jakinaraziko da eta aldaketa horri sustapenari eman zaion oihartzun berbera emango zaio.

3. **Helburua**

Sustapenaren helburua "petronor.eus" Webgunera sart zen diren bisitarien kopurua areagotzea da.

4. **Doakotasuna**

Sustapena doakoa da, beraz, parte hartu ahal izateko ez da produkturik erosi beharko, ezta kuotarik edo zozketako sariak jasotzeko kantitate osagarririk ere ordaindu beharko.

5. **Parte hartzeko baldintzak**

Muskiz, Zierbena edo Abanto-Zierbenako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute, eta www.petronor.eus web orrian sartuta, behar bezala eta sustapenak irauten duen bitartean, orri horretan datorren formularioa bete eta egiten zaion galderari ongi erantzuten duten guztiek.

Parte-hartzaileak ongi erantzun behar dio galderari eta izena emateko formularioko eremu guztiak bete behar ditu. Beraz, sustapenari dagokionez, parte-hartzaileek ongi betetako izena emateko formularioak bakarrik hartuko dira baliozkotzat.

Guztiz egiazkoak edo zehatzak ez diren datuak ez dira onartuko, ezta sustapenaren datan indarrean ez daudenak ere. Onarri hauetan biltzen ez diren baldintzak betetzen

ez dituzten parte-hartzaileek ez dute saririk jasotzeko eskubiderik izango. Parte hartzeko atal guztiak bete behar dira, nahita ez.

Petronorrek eskubidea du sustapenaren erabilera okerra edo gehiegizkoa egiten duela uste duen parte hartzaile oro kanporatzeko, eta haren parte hartzea baliogabetzeko, ondorioz. Erabilera okerra esango zaio, adibide gisa, baina ez honi bakarrik, oinarri hauetan bildutako parte hartzeko baldintzaren bat ez betetzeari.

6. **Mekanika**

Parte-hartzaileek galdera bati erantzun eta parte hartzeko inprimakiko eremuak egoki bete beharko dituzte.

Zure erantzuna zuzena bada , 2 eta 3 ordu artean Urdaibai jaisteko lau lagunentzako bi lekukodun 2 kanoarako aukera ematen duen bonua irabaziko duzu.

Galderari zuzen erantzuten dioten guztien artean egingo da zozketa.

Zozketa amaitzen den egunetik aurrera, irabazlearen izena webgunean ezagutzera emateaz gainera, Petronor pertsona garailearekin, telefonoz, kontaktuan jarriko da (NAN aurkeztu beharko ditu). 24 ordutan kontaktuan jartzen lortzen ez bada, zerrendako hurrengo izenarekin hitz egingo dugu.

Petronorrek eskubidea du ongi iruditzen zaionean zozketen datak aldatzeko. Kasu horretan, petronor.com webgunean jakinaraziko da.

7. **Sariak**

8. Sariak, 2 eta 3 ordu artean lau lagunentzako Urdaibaiko jaitsiera gidatuaz gozatzeko aukera ematen du.

Irabazleen izenak argitaratzea

Zozketa egindakoan, Petronorrek irabazle guztien izena argitaratuko du petronor.eus webgunean. Horrez gain, zozketa egin eta hurrengo egunetan, Petronor harremanetan jarriko da irabazlearekin telefonoz, saria jasotzera hurbil dadin (NAN aurkeztu beharko ditu).

Sustapen honetako sariak jasotzeko eskubidea galduko da erabiltzaile bat baino gehiagorekin parte hartu badu edo sustapen honen oinarriak urratu baditu parte hartzaileak.

Sustapenean zozketa bakoitzeko behin bakarrik har daiteke parte, helbide elektroniko bakarrarekin.

Eskubide hori galduko dute egiazkoak ez ziren edo gezurrezkoak ziren datuekin parte

hartu dutenek ere.

Sustapenaren sariak pertsonalak eta transferiezinak dira eta ezingo dira inolaz ere aldatu edo diruaren ordez edo irabazleak nahi duen beste edozerren ordez trukatu irabazleak eskatuta.

9. **Sarien banaketa**

Saria jakinarazi eta onartutakoan, adierazitako egunetan eta orduetan hurbildu beharko dira irabazleak Findegiaren sarreran (Muskizen) dagoen Bulegora. Bertan, identifikatu eta saria jasoko dute.

Petronorrek ez du bere gain hartuko irabazleak saria ez hartzearen erantzukizuna.

Irabazleei saria eman aurretik haien nortasuna egiaztatuko da. Gainera, saria jasoko duenak Petronorrek bidalitako mezuaren kopia inprimatuta eraman beharko du.

Nortasuna egiaztatzeko IFZ, Egoiliar-txartela edo nortasuna eta bizilekua egiaztatzen duen beste lege-dokumenturen bat erabiliko da. Irabazlea sarreren bila joan ezin bada, honek behar bezala baimendutako beste norbaitek hartu ahalko ditu, dokumentu bidez irabazlearen nortasuna eta bizilekua egiaztatzen badu.

Petronorrek ez dio saririk emango parte hartzeko formularioan adierazitako herrian bizi dela egiaztatzerik ez duen parte hartzaileari.

Gainera, irabazleari elkarrizketa txikia egingo zaio, baita argazkia atera ere, petronor.eus webgunean eta Gazteluberri aldizkarian argitaratzeko.

10. **Iruzurreko parte-hartzea**

Petronor edo sustapen honi lanarengatik lotuta dago en erakundeek arazoren bat hautemango balute edo parte-hartzaileren batek sustapenaren martxa nola edo hala eragozten ari denaren susma balute, erregistroa prozedura tekniko edo informatiko bidez modu ilegalean aldatzen emaitzak aldatzeko, parte hartzailea kanporatu ahalko dute.

Petronorrek saria legezkoa ez den modu batean lortzeko puntuazioak aldatzeko edonolako iruzurrezko ekintzak, ekintza anomaloak edo engainagarriak hautemateko euskarri teknologikoak gaitu ditu. Beraz, Petronorrek eskubidea izango du arestian aipaturiko ekintzaren baten bitartez ekintza irregularra burutu duela badakien edo horren susmoa duen guztien erregistroa (eta, ondorioz, saria eskuratzeko ahalmena) ezabatzeko.

11. **Epai-mahaia**

Parte hartzaileen erreklamazioak Petronorrek horretarako sortutako Epai-mahaiak ebatziko ditu eta haren erabakia ezingo da apelatu. Ez da parte hartzaileen erreklamaziorik onartuko sustapena bukatu denetik bi hile igarotakoan.

12. **Erantzukizun salbuespena**

Petronorrek ez du bere gain hartzen posta arrunt edo elektronikoen bitartez bidalitakoan edo telefono-linean egon diren arazoengatik gertatzen diren galeren, hondamenen, atzerapenen edo hirugarrenen erruz gertatutako beste ezeren erantzukizuna. Beraz, Petronor ez da erantzule izango telekomunikazioko lineak erortzen edo gaizki ibiltzen badira, sustapenean sartzen diren webguneak gaizki badabiltza Petronorrek zerikusirik ez duen arrazoiren baten ondorioz, ezta irabazleei emandako sarietan Petronorrekin elkarlan egiten duten gainerako erakundeek emandako zerbitzuak gaizki badabiltza ere.

Parte-hartze formularioan erabiltzaileek emandako datuak Petróleos del Norte, S.A. (PETRONOR) titular duen, helbidea San Martín Auzoa,5; Muñatones Eraikina, 48550, Muskiz duen entitatea, fitxategi automatizatu batean gordeko dira, eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, datu pertsonalak babestekoa, eta hura garatzen dutenen arabera erabiliko dira, sustapen hau burutu ahal izateko beharrezkoak diren kudeaketak egiteko, besteak beste: zozketa ospatzeko, irabazleen zerrenda jakinarazteko eta gero haien saria entregatzeko, eta baita etorkizunean Enpresaren eta Repsol Taldearen barruko (energia sektorea, aseguruen kontratazioan bitartekaritza, automozioa, bidaiak eta komunikabide pribatuak) beste enpresen beste sustapen batzuk eta merkataritza-komunikazio batzuk burutzeko, posta elektronikoa eta telefonoa barne. Parte hartzaileak eskubidea du fitxategian sartu eta bere datuak zuzendu, baliogabetu edo haien erabileraren aurka azaltzeko. Kasu honetan, espresuki adierazi beharko duzu mezu elektroniko bidez petronor.com helbidera edo posta elektronikoz, edo idatziz, arestian adierazitako helbidera.

Parte hartzaileak baimena ematen dio Petróleos del Norte, S.A. (PETRONOR) enpresari barneko komunikabideetan zein hari ongi deritzon kanpo-komunikabideetan bere datu pertsonalak (sariren bat jaso dutenen izen-deiturak) jakinarazteko, nola edo hala Repsol Taldean zerbitzuak ematen dituzten langileei eta biztanleria osoari sustapena heltzen zaiela ziurtatzeko xede bakarrare

13. **Oinarriak onartzea**

Oinarri hauek www.petronor.eus webgunean daude denen eskura. Parte hartzaileei jakinarazten zaie sustapenean parte hartzeak oinarri hauek guztiak salbuespenik gabe onartzea dakarrela.